

# FUNTSEZKO ELKARTEAK

Atal honetan zein enpresekin harremanetan jarriko garen identifikatuko dugu. Beste hainbat enpresa funtsezkoak dira lana aurrera eramateko, besteengandik ere ondasun eta zerbitzuak eskuratuko ditugulako.

Sentsoredun iturriarekin hasiz, hainbat elkarterekin kontaktuan jarri behar gara. Lehenik, iturria lortzea ezinbestekoa da, produktuaren oinarria baita. *Oleta iturgintzak* salduko dizkigu beharko ditugunak. Material herdoilezinez egina dago, urteen poderioz bere itxura aldatuko ez duena eta kalitatea izan dezan gure produktuak. Oleta enpresatik oso gertu gaudenez, oso azkar lor dezakegu materiala, eta ondorioz, lehenbailehen lortu dugu gure iturria, produktuaren moldaketak ahalik eta azkarren eginda uzteko.

Sentsorea sortzeko materiala eskuratzea oinarrizkoa da produktua osatzeko. "INFOMADAIA" enpresa herrian bertan daukagun bakarra denez, bertan erosiko dugu materiala. Hala ere, herriko elektronika enpresa honek material aniztasun handia du, mota askotariko plakak eskaintzen ditu, guretzat baliagarriak izango direnak. Beste enpresekin alderaturik, beraien aniztasuna askoz ere handiagoa da, eta gure baldintzetara egokitzen da, beraz, aukera egokiena. Sentsorea estaltzeko aluminiozko kaxez baliatuko gara, babesa emateko eta kalterik ez sortzeko. *Aluminios Aleman* Legazpiko enpresarengandik lortuko ditugu aluminio herdoilezinezko xafiak, gure herritik gertu dagoen enpresa txikia delako, eta aldi berean, komertzio lokala sostengatzen dugulako.



*Uggasa* enpresaren eskutik lanerako lokal bat lortuko dugu, guretzat ezinbestekoa dena. Bertan ez dugu salduko, lokal hau gure lanerako izango da soilik. Lokal bat edukitzea ez da merkea izaten, baina *Ugassak* prezio baxu baten truke leku bat eskainiko digu gure proiektu handitu dezan. Enpresa honek 2 urtez eskaintzen ditu lokalak enpresa txiki haientzat, haien proiektuarekin hasi berri direnentzat.